


# Alde Zaharreko Ihauteriak 2009 Carnavales del Casco Viejo



**IRUÑEA**  
Otsaila  
20/ 21/ 22 /23  
Febrero

# ALDE ZAHARREKO INAUTERIAK

## 2009

### KAUTEROAK

#### OTSAILAREN 9tik 13era:



Kauteroetarako mozorro azoka Auzoenean. Arratsaldero, txiki eta helduentzako jantziak.

Kautero eta Ihauterietako Argazkien erakusketa Auzoenean, Otsailaren 28a arte.

#### OTSAILAK 14, LARUNBATA:

9:00 - 13:30 Santo Domingoko azoka mozorrotuko da, eta zingaroz jantzita erosketak egitera gonbidatzen gaituzte.

12:00 Kauteroen kalejira, San Lorenzotik San Jose plazaraino. Iruñeko Gaiteroak, Iruña Taldea eta beste taldeekin.

14:30 Ijito Jaia Errotxapeako igerilekuetan

18:30 Kauteroen Kalejira Nabarreriatik hasi eta kaleetan zehar. San Frantzisko plazan, auzoen arteko zingaro ezkontza ospatuko dugu, kauteroen dantza eta guzti, eta txarangak alaiturik Jarauta kalean bukatuko da.



## ALDE ZAHARREKO INAUTERIAK

### OTSAILAK 18, ASTEAZKENA:

17:00 Auzolana Auzoenean. Gure auzoa ERROMA bihurtzeko auzolana egingo dugu arratsalde osoan zehar. Guk materiala jarriko dugu; ekarri zuen ideiak eta gogoia eta guztion artean lanari ekingo diogu. Anima zaitezte!!!

### OTSAILAK 20, OSTIRALA:

## EUSKAL HERRIKO INAUTERIAK

18:30 Txikientzako gaztainak Nabarrerria plazan.

19:00 Mari Trapuren pregoia eta Maria Trapo panpinaren igoera Nabarrerriako iturrira animazio paregabearekin.

19:00 DJ musika Zabaldin.

19:30 Kalejira, Nabarreriatik Pellejeria plazaraino, Jarauta kaletik ere pasako da. Iruña Taldeak eta Muthiko Fanfarreak lagunduta eta Euskal inauterietako mozerro ezberdinekin. Ondoren, txistorrada musikaz alaituta, Iruña Taldea eta Muthikoekin, eta mozerroen lehiaketa. Animatu!

00:30 Euskal inauterien mozerro dantzaldia Auzoenean, Jarauta 69rekin.

00:30 Jarana eta Iruñeko Algara peñetan. Gainera Zabaldin ere DJ-ak jarraituko du jotzen.

00:30 Euskaraokea Herriko Tabernan. Aukera paregabea izango dugu abesti ospetsu eta berrienak abesteko! Animatu!



## OTSAILAK 21 LARUNBATA

### **ALDE ZAHARRA TERMEN OINARRIA**

11:00 Txokolate jatea Konpainia plazan.

11:30 Haurrentzako puxkabilitza Ortzadar eta Iruña Taldearekin.

Konpainiatik San Frantzisko plazara; bertan auzoko txikiek dantzatuko dute.

12:00 Kalejira Kantuzek gure karrikak animatuko ditu Merkaderesetik ateratzen.

13:00 Mozorroen desfilea egonen da eta Aldezarren Dantzari txikiek dantzatuko dute.

14:00 Babarrun jatea La Jarana peñan (Jarauta kalean).

14:30 Bazkari herrikoia Mainuetan . Txartelak Mesón, Herriko Taberna eta “Viña”n egongo dira salgai.

18:00 Aukeratu zure mozorroa eta etor zaitez mozorrotuta! Erromatarrez jantzi zaitez! Gladiadoreak eta beste guztiak kalera! Musika gure esku!!  
Mainueta, Merkaderes, Estafeta, Merkaderes, Zapateria, San Nikolas, San Miguel, San Frantzisko, Eslaba eta Jarautatik pasako da gure ibilbide martxosoa!

18:00 Jarautatik aterako dira La Jaranako otsoak Batukadarekin! Animatu eta etor zaitez!

19:00 DJ musika Zabaldin.

20:00 “Pompaelum Apestum” antzerkia Yarleku taldearekin Merkaderesen. Ondoren kalejiraz Termetaraino joango gara.(San Agustin kaleraino).

21:00 Luzianok lagunduta, gustura jango dugu bokata Mainuetan, bere erritmo ikaragarriarekin!

22:30 Jarautan eta San Lorentzon izugarrizko giroa aurkituko dugu txarangarekin, ezin galdu!

00:30 Auzoenean, Iruñeko Algara peñan eta auzoko beste tabernetan ere, dantzaldia.

Inauterietako ekintzetan parte hartzeagatik **HERRIKORUM**eko afaritarako bonoak lortu ditzakezue (Herriko Tabernan), afaltzeko, 3€-rengatik bokata eta edaria !

## OTSAILAK 22 IGANDEA

### **NESKAK MUTIL ETA MUTILAK NESKEZ MOZORRATZERA**

13:30 Txikiteo auzoko tabernetan.

18:00 Dantzaldia Luzianorekin Pellejeria Plazan eta festa Jarautan.

## OTSAILAK 23 ASTELEHENA

17:30 Askaria larunbatean jasotakoarekin, San Frantzisko Plazan.

19:00 Maria Trapo Nabarrieriako iturritik jaitsiko dugu eta musikak lagunduta, kalejiran, Santa Ana Plazara joango gara, bertan, bera eta munduko zoritxar guztiak erreko ditugu. Hotza kentzeko, Santa Ana plazan bertan, salda beroa banatuko da.